



LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROETAN LANGILEAK EZ EGOTEA DELA-ETA

Zuzendari agurgarria:

Martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretu berria argitaratu ondoren, zeinaren bidez arautzen baita oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria, Lanbide Heziketako zentroetan garatzen den jarduerari dagokionez, honako hau jakinarazten dizuet:

1. Ikastetxeek funtsezko zerbitzuak bermatzen jarraitu beharko dute, hala nola ikasleen prestakuntza (on-line plataformak) eta ikasleekiko, familiekiko eta administrazioko erakundeekiko komunikazioa. Horretarako, zentroak beharrezko mekanismo guztiak aktibatu beharko ditu zerbitzu horiek bermatzeko, deiak desbideratzea, plataforma digitaletan laguntzea eta abar ahalbidetzen duten sistemen bidez.
2. Zentro batzuek, Tknikaren bidez, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren funtsezko zerbitzuen ziurtagiria jasoko dute. Aipamen berezia egingo zaie babes-ekipoen, osasun-ekipoen eta ospitale-ekipoen - bai eta osasun-zerbitzuak emateko behar den beste edozein materialen ere- ekoizpen-katean ematen diren zerbitzuei. Ziurtagiri hori zerbitzu-emate horretan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzari zuzenduko zaio, eta zuzendariak irakasle-talde txiki ziurtagiria eman ahal izango dio ikastetxera joan ahal izan dadin eta ekipo horiek fabrikatzen laguntzen jarrai dezan.

Zalantzarik edo argibiderik izanez gero, jar zaitezte harremanetan Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzarekin edo Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzarekin.

Zuen lana eta ulermena eskertuz,

Horrenbestez,